



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko uztailaren 4a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkuran erretiratua (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da instalazio fotovoltaikoen egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adin pediatrikoko haurrentzako oinarriko osasun-laguntza pediatriako sendagile espezialistek egin dezaten, eta, progresiboki, pediatriako erizaintzako profesionalak. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 28an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak desadostasuna adierazten du urruntzearen espetxe-politikarekin. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plan bat egin dezan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentzibilitateak ordezkatuko dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan adingabeak egoitzan hartzeari dagokionez. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Caixabanken aurka abiarazi beharreko egin-tza judizialak abiaraz ditzan, lehengo Gobernuak zenbait finantza-produktu (SWAP eta COLLAR) kontratatu izanaren ondorioz foru erkidegoaren funtsek galdutako 4,9 milioiak berreskuratze aldera. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Nafarroako Gobernuak zuzemenak egin ditzan Altsasuko zazpi gazteak Iruñeko espetxera ekartzeko. Eledunen Bartzarrak onetsia (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzen duena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeak taxutzen du Nafarroako segurtasun publikoaren sistema, Administrazio Publiko desberdinen parte-hartzeaz osatua, eta koordinazio eta plangintza tresnak diseinatzen ditu helburu nagusi batekin; alegia, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea, eskura dauden baliabideen erabilera arrazoizkoa eta jasagarria izan dadin; horrenbestez, herritarren segurtasunaren arloan desiragarri diren emaitzen lorpenean eraginkortasun handiagoa erdiestea.

Arau horren II. kapituluan aurreikusirik dago zein den Nafarroako segurtasun publikoko sistema horren antolaketa. Kapitulu horretan arloaren antolamendu administratiboa jasotzen da, berriazko eginkizunak esleitzen zaizkie foru administrazioari eta toki administrazioari organo eskudunei, eta segurtasun publikoaren eremuko parte-hartze eta koordinazio organoak arautzen dira, hala nola Herritarren Segurtasunerako Kontseilua, Herritarren Segurtasuneko toki kontseiluak, Segurtasun Publikorako Departamentuarterko Batzordea, Nafarroako Segurtasun Batzordea, segurtasunerako toki batzordeak udal-

tzaingoa duten udalerrietan, eta, azkenik, Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordea.

Zalantzarik gabe, politika publikoetan parte hartzeko eta horiek aztertzeko bide iraunkorretako bat dira kide anitzeko organoak, bete nahi dituzten beharretarako egokiak eta proportziozkoak badira betiere, eta aintzat hartzen badira eskain dezaketen baliagarritasuna eta balio erantsia, kasu honetan segurtasun arloko politika publikoen hobekuntzari, ekarpen horiek justifikatuko baitute organoen beraien existentzia, azken finean.

Aitzitik, eginkizun berberak dituzten organoak bikoiztu edo ugaltzeak eta antolamendurik gabeko osaketa eta funtzionamendua izateak inoperatibo eta afuntzional bilaka dezakete sistema organiko hori, politika publikoei egin diezaiokeen ekarpena ezerezean utziz. Horregatik, segurtasun publikoaren sistemaz gogoeta egin, eta berrantolatu beharra dago, arrazionaltasunean eta errealismoan oinarritutako irizpideekin, antolaketaren diseinua herritarren behar eta eskaeretara eta Nafarroako Foru Komunitateko errealitateara ekarri; horretarako, beharrezkoa da haien araudia eta operatibitatea ebaluatzea legeak ezarritako printzipioekin bat etor daitezten, kide anitzeko organoen maparen diseinu arrazional eta errealistagoa helburu, segurtasunaren arloko politika publikoari ekarpena egin diezaioten.

Egitura eta mapa organikoak berrantolatzeko ariketa orotan, lehenengo eta behin, murriztu behar da, deuseztapenez nahiz taldekatzez, segurtasun publikoaren sisteman dauden kide anitzeko organoen kopurua, eginkizun-bikoizketagatik edo operatibitate faltagatik segurtasun publikoko sistema horri inolako baliorik ekartzen ez diotenean.

Murrizketa prozesu guztietan ziurtatu behar da kide anitzeko organoari esleitutako eginkizunak ez direla premiazkoak; edo, kontrakoan, mantenduko den beste organo batean daudela edo hark beregana ditzakeela. Alde horretatik, inoiz bildu ez

diren Herritarren Segurtasunerako toki kontseiluek toki esparruan esleituta dituzten eginkizunak aurreikusten dira, batetik, Segurtasuneko Toki Batzordeetan, udaltzaingoa duten udalerrien kasuan; edo, bestetik, Kontseilu Sektorialak eratuz (hauek ez daude pentsatuta soilik polizia kidego hori duten udalerrietarako), zeinak jasota baitaude azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua onetsi zuen horretan. Ohikoa da aipatutako bi organo horiek toki entitateetan errepikatzea.

Bestalde, Foru Komunitateko Administrazioaren mailan, Segurtasun Publikorako Departamentu-arteko Batzordearen eginkizunak errepikatzen dira Herritarren Segurtasun Kontseiluan, baina lehenaren kasuan parte-hartzearen eremu subjektiboa eta objektiboa handiagoak dira, eta hartara bideratu behar dira, modu koordinatuan, segurtasun publikoarekin lotutako gaiak, baldin eta administrazio desberdinak ukitzen badituzte Nafarroako segurtasun publikoaren sistemak oinarrian dituen ikuspegitik eta printzipioetatik: osagarritasuna, lankidetzak, koordinazioa, elkarlana, elkarrekiko informazioa eta leialtasun instituzionala.

Bigarrenik, berregituratze-prozesu horrek helburu hau izan behar du: segurtasun publikoaren sistema hori azkenean osatu behar duten organoen errendimendua optimizatzea, segurtasun publikoaren arloko politikaren plangintza, ezarpena eta ebaluazioa operatiboak eta zuzenak izan daitezela bermatzeko. Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren kasua da, adibidez; izan ere, Segurtasun Publikoaren Departamentu-arteko Batzordea eta Nafarroako Segurtasun Publikoaren Behatokia iraungitzea proposatzen denez, haiek betetzen dituzten eginkizun batzuk Segurtasun Publikoaren Kontseiluak hartuko ditu. Behatokiak zehaztuta dituen eginkizunak Kontseiluari laguntza ematekoak baizik ez dira, nagusiki kudeaketaren eta datuen analisiaren arloetakoak, eta horiek administrazio publiko desberdinen antolaketatik bertatik bete daitezke.

Aipatutako gaietako batzuk aurrera eramateko, beharrezkoa da aldaketak egitea Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legean eta Nafarroako Segurtasun Publikoaren Behatokia sortzen duen martxoaren 28ko 21/2011 Foru Dekretuan.

Artikulu bakarra. Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 9. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Administrazio publiko desberdinei aholku ematea, une eta toki bakoitzean segurtasun publikorako politika egokia diseinatu behar duten erakunde espezializatuei gomendioak emanez eta gizartearen barneko gertaera kolektiboek bereziki kontu eginez.

b) Nafarroako segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertu, ikertu eta ebaluatzea, herritarren segurtasunaren inguruko erreferente adierazgarrienak oinarri harturik, portaeren azterketak eta egoeren analisiak sustatuz, segurtasun indar eta kidegoetako kideen lanak euskarria izan dezan inguruabar zehatz eta baloragarrietan.

c) Herritarren bizikidetzak lasaia eragozten ahal duten faktoreen jarraipen bat egitea, hala nola xenofobia, arrazakeria, kaleko indarkeria eta taldeen indarkeria edo antzeko gertaerak, horrela aurrea hartze aldera herritarren edo gizartearen balio funtsezkoen kalterako izan daitezkeen gatazka eta arriskuei.

d) Nafarroako segurtasun egoera hobetzeko neurri orokorrak sustatzea eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten administrazio publiko desberdinen zerbitzuak hobetzeko ekimenak bultzatzea.

e) Foru Komunitateko segurtasun publikoa dela eta Nafarroako Gobernuak onesten duen urteko txostena ikustea.

f) Interes estatistikoko informazio polizialen sistema bateratu bat kudeatu eta mantentzea, eta Nafarroako Foruzaingoaren eta Nafarroan jarduten duten gainerako segurtasun indar eta kidegoen artean interes polizialeko informazio-trukea sustatzea.

g) Nafarroako Segurtasun Publikorako Plan Orokorra nola eta zenbateraino betetzen den zain-tzea.

h) Indarra duten arauetan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak".

Bi. 10. artikulua kentzen da.

Hiru. 11. artikulua kentzen da.

Lau. 18. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"3. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra onestea, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak proposatuta, eta Nafarroa-

ko Herritarren Segurtasunerako Kontseiluak haren berri izan ondoren”.

Bost. 22. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. Segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuak urtero txostena egin behar du Nafarroako Foru Komunitateko barne-segurtasunari buruz, Nafarroako Estatistika Planak arautzen dituen estatistika-jardueretan oinarritua. Txosten hori agintari eta organo interesdunei eskueran jarri behar zaie; bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeari, Nafarroako Toki Poliziak Koordinatzeko Batzordeari,

tokiko segurtasun batzordeei eta herritarren segurtasunerako kontseiluei”.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeak.

Indarrik gabe gelditzen dira lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten lege edo erregelamendu mailako xedapen guztiak; bereziki, martxoaren 28ko 21/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Segurtasun Publikoaren Behatokia sortzen duena.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAN ERRETIRATUA

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 28an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Nafarroako Gobernuak lehendakariak erretiratu duela 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua. Foru Lege proiektua

Nafarroako Gobernuak aurkeztu zuen eta 2018ko ekainaren 19ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da instalazio fotovoltaikoen egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da instalazio fotovoltaikoen egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egungo ordainsariak izoztu ditzan instalazio fotovoltaikoen erregulazio-bizitzaren amaiera arte, eta ez dadin berriz ere egin horien ordainsaria gutxitzea ekar dezakeen inolako murrizketa gehigarririk edo eguneratzerik”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adin pediatrikoko haurrentzako oinarrizko osasun-laguntza pediatriko sendagile espezialistek egin dezaten, eta, progresiboki, pediatriko erizaintzako profesionalak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adin pediatrikoko haurrentzako oinarrizko osasun-laguntza pediatriko sendagile espezialistek egin dezaten, eta, progresiboki, pediatriko erizaintzako profesionalak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua honakoetara premiatzen du:

1. Sustatzera pediatriko sendagile espezialistek eta, progresiboki, pediatriko erizaintzako pro-

fesionalek egin dezaten adin pediatrikoan dauden haurren oinarrizko osasun-laguntza,

2. Pediatra batek eta erizain batek osatutako Arretarako Oinarrizko Unitateak berrantolatzea. BOT eta sakabanaketa geografikoko irizpideak erabiliko dira, arretaren kargak orekatzeko, kalitatea hobetzeko eta arreta pediatriko mediku espezialistek eman dezaten sustatzeko.

3. Kasuko sindikatuekin adosturik, pediatriko erizain espezialisten kontratazio-zerrenda berezi bat ezartzera, Oinarrizko Osasun Laguntzako postuak betetzeko. Zerrenda horri lehentasuna emanen litzaioke, zerrenda orokorraren gainetik, pediatriko lanpostu berariazkoak kontratatzerakoan.

4. Pediatra bakoitzeko 1.000 BOTeko gehiengo kopuru bat jartzera (hori mugatzat jotzen da

segurtasun kliniko eta arretaren kalitate egokiak bermatzeko, profesional horien lan-gainkarga ekiditeaz gain). Gainditzen direneko salbuespenkasuetarako beste berrantolaketa-aukerak dira adostasun sindikaldun ordain-osagarrien aukera aztertzea, sakabanaketa geografikoaren arabera-koak, eta 1.000 BOT/profesional baino gehiagoko kupoak, kontuan hartuz betetzeko zailtasun berezia duten lanpostuak ere.

5. Neurri egokiak hartzera (kontratuen, ordain-sarien eta prestakuntzaren arloetakoak), pediatria berriak erakartzeko eta daudenei eusteko.

6. Aldi baterako kontratuen kalitatea hobetzera, horrela erraztearen zerbitzuaren jarraitutasuna eta aldi baterako kontratatutako profesionaleri eustea.

7. 2019rako lan-eskaintza publiko berri bat tramitatzera, oraingo lan-eskaintza publikoan pediatriako lanpostu gehiago ezartzea aztertuz, aldi baterako kontratuen proportzioa murriztearren.

8. Osasun Departamentutik sustatzera Oinarriko Osasun Laguntzako pediatriako profesionalen prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

9. Oinarriko Osasun Laguntzan ordezkapen-irizpideak berdintzera Laguntza Espezializatuan ezarritakoekin.

10. Profesional ezberdinen lan- eta familia-bizitzaren bateragarritasuna sustatzera, lan-ordute-giaren malgutasunaren eta beste bateragarritasun-neurri batzuen bitartez.

11. Tresna informatiko berariazkoak garatzera, bai eta jardun klinikorako gida eta protokolo eguneratuak ere.

12. Oinarriko Osasun Laguntzan eta Larrialdietan Arreta Pediatrikorako plan sektorial bat garatzera. Bertan garatuko diren programek kontuan hartuko dituzte familia-eredu berriak, aniztasun kulturala eta errealitate sozial berriak.

13. Aipatu plan sektorialean, arreta ematera haur eriek eskolan dituzten beharrezan bereziei.

14. Osasun-sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren hurrengo bileran eskatzera azter dadila profesional-gabeziako egoera, pediatriako espezialistak barne, bai eta zer neurri hartu behar diren ere; horien barne, Barruko Medikuko Egoiliarren lanpostu gehiago eskaintzea datozen deialdietan”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 28an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak desadostasuna adierazten du urruntzearen espetze-politikarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 28an onetsia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak desadostasuna adierazten du urruntzearen espetze-politikarekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak, eskaturik bete dadin Espetze Lege Orokorra jasotzen duena, birgizarteratze-printzipioa aintzat hartuz zigor askatasun-gabetzaileen betetzean deserrotzea ekiditeko, bere desadostasuna adierazten du

urruntzearen espetze-politikarekin, eta ildo horretan, ETA desagertu ostean ireki den garai berrian, beharrezkotzat jotzen du espetze-politika berri bat, ekiditekoa askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzea errotze sozial eta familiarreko tokietatik urrun, halako moldez non erraztu egingen baita senitarte-koekiko harremana, seme-alaba adingabeen ongizatearen mesedetan eta haiek beren gurasoekin egoteko duten eskubidearen defentsan.

2. Nafarroako Parlamentuak jotzen du beharrezkoa dela elkarbizitza-politiketan aurrera egitea. Horretarako egokia da indibidualizazioaren, gizatasunaren eta egindako kaltea aitortzearen printzipioak aplikatzea”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plan bat egin dezan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2018ko ekainaren 19an egin-dako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetarako Nafarroako eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko jarduketa plan bat egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak, eredu horretan aitzina egiteko eta enpresak Nafarroan sustraitzea eta jarraitzea sendotzeko baliabide gisa ere, enpresen oinordetza-arazoak konpondu ahal izatea laguntzeko, Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat egin dezan nafar enpresen eredu inklusibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko, legegintzaldi honetan eta hurrengoetan gara dadin. Planak, besteak beste, honako politika hauek jasoko ditu:

a) Eredu inklusibo eta parte-hartzaile batek berezkoak dituen kudeaketa-sistema parte-hartzaileak zabaldu eta ezar daitezzen laguntzea, horri gehituz Nafarroako enpresetan barne-komunikazio politiketako jardunbiderik onenen definizioa eta ezarpena, helburuen definizioa, adierazleen hautaketa... zeinak funtsezkotzat jotzen baitira proposatutako aldaketarako.

b) Langileek enpresaren emaitzetan parte hartzeko sistemen ezarpena bultzatzea orobat, Nafarroan nahiz Europan arrakastarik handiena izan duten formulak identifikatzen lagunduz.

c) Langileei enpresaren kapitalean sar daitezzen erraztea, langile bakoitzak egindako ekarpenarekiko laguntza proportzional bat emanez, ezarri beharreko gehieneko batekin.

d) Jabetzan parte hartzea sustatzen laguntzen duten politika fiskalei dagokienez nazioartean baliatzen diren praktikarik onenak identifikatzea.

e) Formula juridiko egokiak eta, kasua bada, lege bat taxutzeko aukera aztertzea, egungo

araudia perfektionatzeko edo/eta botere-banaketaren eta emaitzen errekerimenduei hobeki egokitutako lege-tresna bereki bat diseinatzeko, inplikaturako langileek ezartzen dituzten berariazko irizpideen arabera.

f) Partaidetzako Enpresen Erregistro bat sortzea, enpresen sustapenean ezartzen diren neurriei segurtasun juridikoa ematen laguntzen ahaliko duena. Erregistroan izena eman ahaliko dute kapitaleko parte-hartzearen portzentajea ezarritako gutxieneko minimotik goitikoa daukatenak eta, aldi berean, ezartzen ahal diren bestelako baldintza gehigarri batzuk betetzen dituztenak.

g) Eredu inklusibo eta parte-hartzailearen ezarpena ebaluatzeko eredu bat prestatzen laguntzea, enpresei izandako aurrerabideak identifikatzen lagunduko dien check list batekin.

h) Enpresaburuei eta langileei zuzendutako sensibilizazio-kanpainetan laguntzea, proposatutako eredu inklusibo eta parte-hartzailea sustatzeko.

i) Eredua ezartzerakoan nabarmentzen diren enpresei prestigioa ematea, hori dela-eta sariren edo aitortzaren bat antolatuta.

j) Enpresa-kudeaketari, estrategiari eta abarrei buruzko prestakuntza-jarduerak garatzea, Enpresa Batzordeetako kideei, ordezkari sindikalei, sindikatuetakoa liberatuei... zuzenduak, bai pertsona horientzat bereziki, bai inplikaturako enpresetako zuzendaritza-kideekin batera.

k) Ereduaren zabalkundea egiteko eta adierazitako ekintza-planak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikustea aurrekontuetan.

j) Ereduaren aplikaziotik hel daitezkeen beste batzuk”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibiltateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita.

KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2018ko ekainaren 19an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibiltateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafar Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan, halako moduan non Nafarroako kultur sentsibiltateak ordezkatu dituen Kulturaren eta Arteen Nafarroako Kontseilu parte-hartzaile bat taxutzen ahal izanen baita 2018a bukatu aitzin”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan adingabeak egoitzan hartzeari dagokionez.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko ekainaren 29an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan adingabeak egoitzan hartzeari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Egoitza-harrerako neurrien aurreko eta ondoko etapetan babes-programa prebentiboak

garatu eta areagotu ditzan, eta baita familia-inguruntetik ateratzea saihesten duten familia-zaintzako programak indartu ditzan ere (HNAT-Haurren eta nerabeen arretarako taldeak, familian esku hartzeko programa espezializatua eta nerabe-hezkuntzako programa).

– Gurasoen eginkizun positiboa eta hezitzailea berreskuratzeko programak indartu ditzan, egoitza-harrerako prozesuetan dauden adingabeak dituzten familientzat”.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Caixabanken aurka abiarazi beharreko egintza judizialak abiaraz ditzan, lehengo Gobernuak zenbait finantza-produktu (SWAP eta COLLAR) kontratatu izanaren ondorioz foru erkidegoaren funtsek galdutako 4,9 milioiak berreskuratze aldera.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko ekainaren 28an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Caixabanken aurka abiarazi beharreko egintza judizialak abiaraz ditzan, lehengo Gobernuak zenbait finantza-produktu (SWAP eta COLLAR) kontratatu izanaren ondorioz foru erkidegoaren funtsek gal-

dutako 4,9 milioiak berreskuratze aldera". Mozioa Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztu zuen eta 2018ko maiatzaren 11ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur-esplotazioaren aurkako neurriak har ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mónica Domenech Linde andreak aurkezturiko mozioa erretiratu duela, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen haur-esplotazioaren

aurkako neurriak har zitzan. Mozioa 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Nafarroako Gobernuak zuzemenak egin ditzan Altsasuko zazpi gazteak Iruñeko espetxera ekartzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko uztailaren 2an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak behar diren zuzemenak egin ditzan Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiaren aitzinean, ahal den eperik laburrenean bermatze aldera Altsasu kasua delata gaur egun kartzelan dauden zazpi gazteak Iruñeko espetxera ekar ditzaten”.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
